

Solasaldiak liburutegian

Barañaingo alkateak

Solasaldiak Liburutegiak: Barañaingo alkateak.

ARGITARATZAILEAK: Barañaingo Udalaren Kultura Arloa / Barañaingo Liburutegi Publikoa.

EGILEAK: hainbat egile.

ARGITALPEN-KOORDINAZIOA: Brandok.

ARGAZKIAK: Iñaki Zaldúa Iriarte.

LAGUNTZAILEAK: Nafarroako Gobernua, Vivir en Barañáin.

DATA: 2012ko azaroa.

ISBN: **978-84-606-5280-9**.

LEGE GORDAILUA: **NA-721/2011**.

Debekatura dago liburu honetako edukiak-gutziz edo zatika-edozein eratan berregitea, erregistratzea edo transmititzea, argitaratzailearen idatzizko baimenik gabe.

Aurkibidea

1.- Solasaldiak liburutegian:

“Barañainen historia bere alkateen bitartez”4. or.

2.- Juan Bautista Agós Olave,

“Herri izatetik hiri izatera”7. or.

3.-José Zubillaga Astiz,

“Haizeen erresuman”13. or.

4.-José Miguel Sánchez Monge,

“Fakultatearen eta Kontzejuaren artean”18. or.

5.-Martín Orbara Ibáñez,

“Barañain, adinez nagusia”23. or.

6.- Gregorio Clavero Notivol,

“Garabien oihanean”28. or.

7.-Juan Felipe Calderón Blanco,

“Urakanaren begian”33. or.

8.-Joaquín Olloqui Osés,

“Oztopo guztien gainetik”38. or.

9.-Iosu Senosiáin Ibáñez,

“Eztabaida amaigabeen bizitzea”42. or.

10.-Floren Luqui Iribarren,

“Izar iheskor bat alkate”47. or.

11.- José Antonio Mendive Rodríguez,

“Krisia kudeatzea”53. or.

SOLASALDIAK LIBURUTEGIAN:

“Barañainen historia bere alkateen bitartez”

“Barañainen oroitzapena ezabaezina, liluragarria eta nostalgikoa da. Ez dut hitzik aurkitzen, eta saiata ere, ez nintzateke gauza izanen gogoratzen dudanean sentitzen ditudan emozioak azaltzeko. Mizke hazitako neskatxak ginen herrian. Niretako gauza handiena zen, gari-jotzean, narra baten gainera igotzea larrainean biraka ari zenean, edota belarrez beteriko orga baten gainera igotzea. Eta ez naiz halakoak kontatzen hasiko, ikusten duzunez, laster hasten bainaiz negarrez”.

MATEO GAMBARTE, Eduardo: “*María Luisa Elío Bernal. La vida como nostalgia y exilio*” Universidad de la Rioja arg., Logroño, 2009.

Barañainen historia ikuspegi askotatik kontatu daiteke, eta, haietako bat, dudarik gabe, aldi batez bere ordezkari eta ageriko buru izan ziren haiena da. Horixe da orrialde hauetan aukeratu den ikuspegia. Orrialde hauen irakurleek Barañainen historia ezagutzeko aukera izanen dute hiriak izandako alkateen begien bitartez; izan ere, 1971tik egundaino alkate izandakoen testigantzak biltzen dira hemen: hamar alkate berrogei urtean, simetria engainagarri samarra, laster ikusiko dugunez. 2011ko udan eta udazkenean zehar liburutegi berrian elkarrizketatu genituen hamar alkateek euren oroitzapenak ekarri zituzten gogora, emeki-emeki, guk galderak egin ahala. Haiek guztiek, logikoa denez, irudi ona eman nahi izan zuten, eta agerikoa da gehienbat euren lorpenak aipatu zituztela, oin-puntetan ibilita arazo, protesta eta liskarren gainetik; halere, horiek ere sumatu egiten dira lerro artean. Hala eta guztiz ere, balio handikoak dira jarraian dituzun orrialdeak, arrazoi askorengatik, gainera. Lehenik eta behin, horiek irakurritz hiri bat ezerezetik nola sortu zen ikusiko dugulako, eta hori zoragarria da. 1971n, Juan Bautista Agós Kontzejuko lehendakari zela (oraindik ere Francoren diktadurapean), etxe multzo bat eta herri zaharrean pilatuta bizi ziren herritar gutxi batzuk baino ez zeuden Barañainen; gainerako

guztia lurralde urbanizagarri bat zen, urte gutxiren buruan Nafarroako bigarren udalerrri bilakatu behar zena biztanle-kopuruari dagokionez.

Alkate bakoitzak protagonismo berezia du adinez nagusi izaterainoko bide horretan; bakoitzak kontatzeko historia bat du, denen ardura izan baitzen –heine batean edo bestean– gauzak sortzea eta izendatzea: formula administratibo berriak, ekipamendu berriak, zerbitzu berriak, parke eta plaza berriak. Horixe da solasaldi hauen osagarri nagusia; bestea, talde politikoen arteko tirabirak, beharbada, Iosu Senosiáinek dioen bezala, Barañainen, betidanik, ika-mika politikoa eta eztabaida atsegin izan ditugulako. Episodio batzuek oinatz sakonagoa utzi dute azken urteotako historian, eta behin eta berriz azaleratzen dira solasaldietan, lelo baten antzera: Gregorio Claveroren aurkako epaiketa 1993an, UPNk zerrendetan izandako ahaztura 1999ko hauteskundeetan, UPNko zerrenda-buru José Antonio Mendiveren burdindegiauren aurkako atentatua 2006an.

Oroimena selektiboa da; horregatik, hamar alkateetako bakoitzaren oroitzapenak oso partikularrak dira, baita bere ideia politikoak eta jarrera bera ere. Era berean, desberdina da haietako



bakoitzaren estiloa gauzak kontatzeko orduan. Solasaldian, beraz, nahasketa berezi bat sortu da: bizitza pribatua eta bizitza publikoa, benetako gertakariak eta iritziak, gauzatutako proiektuak eta bete gabeko ametsak; nahaste horrek, ordea, xarma berezia ematen dio multzoari. Dena den, ezin dugu esan dibertsitatea izan dela proiektu honetan parte hartu dutenen ezaugarri nagusia, funtsezko gabezia batetik abiatu garelako: udalerrriak berrogei urtean izandako hamar alkateak gizonezkoak izan dira, eta horrek erakusten du aurretik bide luzea dagoela oraindik ere emakumeek eremu publikoak konkista ditzaten. Egia da espektro ideologikoa nahikoa zabala dela; izan ere, azken berrogei urte horietan mota guztietako politikariak aritu dira alkate: ezkerrekoak nahiz eskuinekoak, nazionalistak eta nazionalistak ez direnak, eta hainbat adin, prestakuntza eta jatorritakoak. Inguruabarrak eta karguan emandako denbora ere dezente aldatzen dira. Ez du zerikusirik Gregorio Clavero aritu zen garaiak (Bartzelonako Joko Olinpikoak eta Sevillako Expo erakusketa) José Antonio Mendiveri egokitu zaionarekin (erabateko krisi ekonomikoan); halaber, ez da gauza bera hamar hilabeteko aldia izatea

proiektuak aurrera eramateko, Floren Luquiren kasuan, esaterako, edo sei urte izatea, Juan Felipe Calderónek bezala, edo zortzi, Juan Bautista Agósen kasuan adibidez. Horregatik, zaila da balio-judizio bat egitea haietako bakoitzak egindako kudeaketari buruz, eta, gainera, hemen ez dugu inolako asmorik hori egiteko.

“Solasaldiak liburutegian” saileko bigarren liburu honen bidez Barañaingo oroimena berreskuratzen jarraitzen dugu, udalerrian nabarmendu diren pertsonekin izandako elkarrizketen bitartez. Xumeak izanda ere, garrantzitsuak iruditzen zaizkigu gure historia ezagutzeko eta transmititzeko egindako ahalegin guztiak; izan ere, hiria eraikitzeke modu bat da hori ere, hau da, gure arteko loturak sortzea eta ahanztura galaraztea.

PROIEKTUA KOORDINATZEKO TALDEA
(BARAÑAINGO LIBURUTEGI PUBLIKOA
ETA KULTURA ETXEA)



JOSÉ ZUBILLAGA ASTIZ

“Haizeen erresuman” (1979-1982)

Soslaia

Prestakuntzako maisu hau Kontzejuko lehendakari aritu zen 1979tik 1983ra. Oso goiz etorri da elkarrizketara, zenbait osasun-arazo tarteko, goiz jaikitze ohitura baitu; izan ere, arazo horiek direla-eta, aurretiko erretiroa hartu behar izan zuen Volkswagen enpresan harreman publikoen arloan zuen lanpostutik. Gainera, parlamentaria izan da UCDeekin, baita berriketakide ere, COPE eta SER irrati-etxeetan.

José Zubillaga Beraskoainen sortu zen 1944an. Apaiz izateko hasi zen ikasten *domingotarrekin*, Atarrabian lehenbizi, Leonen eta Burgosen gero. 1963. urtean itzuli zen Nafarroara, 19 urte zituela, Santanderren filosofia-ikasketak egin eta gero. *“Ni izan nintzen kalean errebotatu bat deitzen zena.*

Apaiz-bidean hasi baina azkenean utzi zuen haietakoa”.

Maisutzako hiru urteak bakar batean egin zituen, eta bukatu eta gero maisu aritu zen Uxuen, gero Adiosen, eta azkenean Beran –7 urtez eman zituen eskolak bertan–. Ez zituen oposizioak gainditu

José Zubillaga Astiz:

Bide librea eman zioten Barañain zabaltzen hasteari. Kasik sustatzaile bakar batekin, Avancorekin. Izan ere, hasieratik eta denbora luzez, izen hori erabiltzen zen herria izendatzeko. Eta Kontzejuak, zerbitzuz hornitzeaz gainera herriaren nortasuna ere sendotu nahi zuenez, ez zuen formula aurkitzen jendeak bere izenez dei zezan. “Hiri autobusetako errotuluetan ere Avanco jartzen zuen”.

aurkezteko izan zuen aukera bakarrean. Horregatik, bere bizitza industria-lanerantz orientatzea erabaki zuen.

Uda batean, eskolako oporraldian zegoela, Authi enpresan (egun Volkswagen den enpresaren aitzindarietako bat) lan egiteko probatan hasi zen bertan lanean ari zen anaia baten bidez. Uste zuen tailerretan lan egiteko hartuko zutela, baina azkenean bulegoetan bukatu zuen, hain zuzen ere, maisutzako prestakuntza izateagatik. Garai hartan, dio, ez zegoen jende askorik, ikasketak izanda fabrika batean lana bilatzera joaten zenik. Eta hor aritu da, enpresak izandako aldaketa guztien lekuko, hari eta duela zazpi urte erretiroa hartu zuen arte, 59 urte zituela; diabetesak hala behartuta, hartu zuen, aitortzen digunez. Lan hori gustuko zuen, komunikazio, irudi eta harreman publikoekin erlazionatuta zegoelako. Lanpostu dinamiko hark bere gaixotasunerako oso txarra zen bizimodua eramatera behartzen zuen.

Barañainera 24 urte zituela etorri zen, 1968an, ezkondu baino bi urte lehenago. Hasieran Sahats plazan bizi izan zen, gero Merkatal hiribidera joan zen, 10. zenbakira, eta hirugarren fasea zabaldu zenean Eultzako hiribidera joan ziren bizitzera.

Barañain izan da Espainiako lehen udalerria, eraiki baino lehen lursailak urbanizatzeko agindu zuena araudiaren bitartez. Volkswagen fabrikako langileek etxebizitza-kooperatibak egiteko lursailak lortu zituztenean, bi leku eman zizkieten aukeratzeko. Batzuk hona etorri ziren, eta beste

batzuk Iturramara joan ziren, teoriiaz maila handiagoko auzoa baitzen. Oraindik gogoratzen du Iturramako kaleak lohiz, lurrez eta ur-putzuz beterik zeudela, Barañain osoa Avancok urbanizatuta zegoen bitartean.

Burlatak, une hartan, gehienezko biztanleria lortua zuen Iruñearekin eta Atarrabiarekin muga egiten zuelako, eta bide librea eman zioten Barañain zabaltzen hasteari. Kasik sustatzaile bakar batekin, Avancorekin. Izan ere, hasieratik eta denbora luzez, izen hori erabiltzen zen herria izendatzeko. Eta Kontzejuak, zerbitzuz hornitzeaz gainera herriaren nortasuna ere sendotu nahi zuenez, ez zuen formula aurkitzen jendeak bere izenez dei zezan.

“Hiri autobusetako errotuluetan ere Avanco jartzen zuen”.

Barañain urbanizatzen eta eraikitzen hasi zen garaian hau sekulako nahaste-borrastea izan zen.

“Bospasei etxeke herri batean urbanizazio bat eraikitzeak ekarri zuen inbasioa... inon ez da hori behar bezala kudea dezakeen politikaririk”.

Aurreikuspenak egin ziren, jakina. Gogoratzen duenez, azalerako autoei buruzkoa izan zen lehen eta garrantzitsuenetako bat. Hasiera batean kalkulatu genuen solairu bakoitzeko auto bana aparkatuko zela kalean, baina oso denbora gutxiren buruan launa auto kalkulatu behar izan genuen berriro, etxe batzuetan hiruna auto zeudelako solairu bakoitzeko, eta orduan ez zegoen lur-azpiko aparkaleku bat ere Barañainen. Horrela, agerian gelditu zen udalerrri horren gabezia handienetako bat: aparkatzeko leku gutxi zegoela, bai lur-azpian, bai azaleran. Horregatik, Sahats ikastetxearen azpian lur-azpiko beheraguneak egitea izan zen ekin genion lehen proiektua. Hezkuntza Departamentuak, ordea, ez zuen onartu proiektu hori, eta Ezki plazan gauzatu zen azkenean.

Barañaingo Plan Orokorrak landu zuen beste gai bat, berak kudeatu behar izan zuena, etxebizitza mota orekatzea izan zen. Barañainen oso dorre altuak zeuden hasieran, gero eta txikiagoak zirenak denbora joan ahala. Kontua zen zentro hipotetiko bat sortzea (eta gainera ekologikoa), lakuaren parkea alegia, eta hortik oreka bat bilatzea.

Tokiko politikaz interesatzearena beste kontu bat da, esaten digu. 1979an lehen hauteskundeak izan ziren. Gogoratzen du Volkswagenera lanera lau lankide jaisten zirela (Etayo, Rosendo, Goñi eta bera) eta autoan hizketan aritzen zirela. Garai hartan Barañaingo lehenbiziko festak izan ziren. Orain posta-bulegoa dagoen etxabea garai bateko Kontzejuaren egoitza eta Osasun Zentroa zegoen, eta ikusi zuten ikurrina jartzen ari zirela. Eta hori izan zen pizgarria. Autoan joaten ziren laurek esaten zuten “edo erreakzionatzen dugu, edo inbaditu eginen gaituzte”. Denak bat zetozen horretan: aurkeztu beharra zegoen, baina inork ez zuten ardura hori hartu nahi.

Azkenean hamalau hautagairen zerrenda aurkeztu zuten, erretiro hartutako zenbait pertsonarekin osatu behar izan zutena; hartara, talde nahiko berezia izan zen emaitza. Unibertsitateetik, Sánchez Monge, gero alkate izandakoa, eta Herrera jauna zeuden. Eta 14 pertsonen artean bi emakume zeuden: Ana María Sanz, margolaria, eta M^a Pilar González, funtsezko lana egin zuena hezkuntzaren arloan. Eta, gainera, Nafarroako Unibertsitatearen babesa eta laguntza zuten gai horretan.

Hauteskundeak egin eta AIPB alderdiaren 14 hautagaiak atera ziren (Agrupación Independiente Pro Barañáin), bai eta Cendea Unida alderdiko 7 ere, “*egungo abertzaleak, elkar uler dezagun*”. Urte hartan AIPB alderdiak irabazi zituen hauteskundeak, eta bera proposatu zuten Barañaingo Kontzejuko lehendakari gisa.

“*Harri eta zur gelditu nintzen: Apaiza naiz, baina! Nik komentu bat administra dezaket!*”. Bromak irribarrea eragiten dio.

“*Teoriaz independenteak ginen, baina bazen fatxak*” deitzen zigunik. Kanean zebilen leloa orduko hura zen: “*Del Burgo, Aizpún, Navarra es euskaldun*”. Pentsa, beraz, inon diren mehatxu guztiak jaso genituen”.

Eta halere, bere ustez nabarmenena da garai hartan denek herriaren alde lan egiten zutela, interesik gabe eta seriotasunez, alderdien siglei inolako garrantzirik eman gabe. Bai Cendea Unidakoak, bai sozialistak, esaten digu, lasai ederrean izan zitezkeen bere hautagaitzakoak. Alde guztietatik arazoak sortzen zirenez, ez zuten denborarik

José Zubillaga Astiz:

Lurgorri plazan Eslavaren estatua bat dago, eremu horretako enpresa eraikitzaileak ordaindu zuena. Zubillagak inauguratu zuen, eta bere hitzaldian eskerrak eman zituen baten bati bururatu zitzaiolako zementu hutsa ez zen zerbait ordaintzea eta egitea Barañaintzat, estatuaren inguruan belardia eta hesi bat baitzeuden.

ezertan aritzeko. Garai hartan 6.000 biztanle zituen Barañainek, baina egia esan askoz gehiago zeuden, erroldatu nahi ez zuten jende asko bizi zelako (poliziak, iragaitzazko bidariak...).

UCDko parlamentari aukeratu zuten geroago Zubillaga. Iruditu zitzaion biderik egokiena zela Barañaingo arazoak konpontzeko eta hauteskundeetan aurkeztu zen. Orduan hautagaitzak Merindadeen arabera aurkezten ziren, eta bera atarian gelditu zen Juan Mari Elía, Zizurkoa, aukeratu zutelako. Elíak, hilabete batzuen buruan, kargua utzi zuten arrazoi pertsonalak zirela-eta, eta Zubillagak ordeztu zuen. Oso garai nahasia zen, Herri Batasuna eta Orhi Mendi –Bueno Asinen alderdia– alderdien presentzia handia zegoelako Parlamentuan, eta orduan izan baitzen FASA aferaren eskandalua, Del Burgo inplikatu zuena.

“*Garai hartako Parlamentuaren oroitzapenik? Nahia adina. Ni parlamentari hasi nintzen egunean, eskuinaldean Herri Batasunakoak ikusi nituen harrikada dialektikoak botatzen: 1936ko hildako guztiak, eta abar. Ni nire baitan bildua nintzen, eta bat-batean: baina zer gertatzen da hemen? Nire alderdikideek seinaleak egiten zizkidaten korridoreko atetik, eta konturatu nintzen bakarrik nengoela. Altxatuak ziren Herri Batasunako bozeramaileak esandako astakeriak ez entzuteko, eta ni ez nintzen konturatu alde eginak zirela*”.

Barañainera itzulita, herrian egindako lehen lan publikoetako batez hasi da hizketan. Garrantzi handikoa iruditzen zaio, nahiz eta orain inor ez da horretaz ohartzen. Bazegoen zinegotzi bat, Goñi izenekoa, urte askoan Milagroko alkate izandako



bere aitarekin etortzen zena. Eta Barañaindik ibili ziren paseoan. Eta herri zaharretik kiroldegira zihoazela, Arga ibaiaren gainean dagoen 50 metrotik gorako terraza horretatik, babestu gabeko altuera hori ikusi eta Zubillagak gogoratzen du esan ziola: *“Alkatea, edo zerbait jartzen duzu hemen, edo umeren bat behera erori eta Jordan ibaiko urak ere ez zaitu salbatuko”*. Handik bi egunera, leku horretatik zihoan eta basaran-zuhaixka bat ikusi zuen amildegiaeren hasieran eta haizeak haraino eramana zuen aldizkari pornografiko bat, sasian geratua zena. Eta orriak pasatzen zituen haizeak, eta haur bat ikusi zuen amildegian, arrastaka aldizkaria eskuratu nahian. Horrela, ziztu bizian lortu zuen, Parlamentu bidez, gizarte ekintzako plan bat. Eta horixe izan zen inbertitu zuen lehen dirua, pasealeku horretan, eta langabeekin egin zuen.

“Lan horretatik ez zen oroitzapenik gelditu, baina ongi egina zegoen ziur asko, inor ez baita hartaz oroitu, ezta leporatzeko ere”.

Ekin zion bigarren lana eskola eremukoa izan zen; gaur egun institutua eta kiroldegia zeuden bertan, baina orduan lurrezko larre bat baino ez zen.

“Eta, jakina, haizeen erresuma dugun Barañain honetan, hareak traba dezente sortzen zizkien bizilagunei. Kexa asko zeuden”.

Zubillagak gogoratzen du eraikitzaile batekin hitz egin zuela, eta makinak Mendialdetik Erriberara eraman behar zituenez, aukera baliatu eta kontua konpondu zuen modu erraz eta merke batean. Zendeako Udala Gazolatzen zegoen, eta bi idazkari zeuden bertan, Ángel Urriza eta Julio Aisa, arratsaldez Barañaingo aferez arduratzen zirenak, baina argi zegoen hura ez zela nahikorik.

“Nik banuen lankide bat fabrikari, lan egiteaz gain ikasi egiten zuena, eta zuzenbide eta idazkaritzako ikasketak eginak zituen. Lesakara joana zen lanera, eta han langile-buru kontratatua zuten. Lanean egun gutxi zeramatzala, lehen hitzarmen kolektiboaren negoziazioan bere izena agertu zen herri osoan “Honen bila gabiltza” goiburua zuten kartelak jarri zituztenean. Horrela, alde egin behar zuela pentsatu eta Burgira joan zen. Eta han idazkari ari zela, Barañainera lan egitera etortzeko planteamendua egin genion. Eta horrela iritsi zen

Teodoro Domeño, Udaleko lehen idazkaria, niretzat benetako laguntzailea izan zena”.

Garai hartan bi udaltzain baino ez zegoen, gogoratzen du: Antoñanzas eta José Antonio Acosta. Eta berak beste lau izendatzeko ardua izan zuen. Kontzejuak zuen presiorik handiena gurasoena zen, ikastetxeak zirela-eta. Eskola bakar bat zegoen aurreikusita, eta ezin zuen une hartan zegoen eskari guztia hartu. Gainera, eskola hori eskola-kontzentrazio gisa sortu zen, eta, beraz, Barañaingo haurrak ez ezik, eskualdeko beste herrikoak ere etortzen ziren (Beraskoain, Zabaltza...). Egin zuen lehenbiziko gestioa izan zen hori, ikastetxeen planifikazioa ministerioekin egitea, bigarren hornidura abian jartzeko (Alaitz ikastetxea) eta ordurako hirugarrena programatzea, geroago Eultza ikastetxea izan behar zuena.

Eta garai hartan elementu bereziren bat ere instalatu zen. Lurgorri plazan Eslavaren estatua bat dago, eremu horretako enpresa eraikitzaileak ordaindu zuena. Zubillagak inauguratu zuen, eta bere hitzaldian eskerrak eman zituen baten bati bururatu zitzaiolako zementu hutsa ez zen zerbait ordaintzea eta egitea Barañaintzat, estatuaren inguruan belardia eta hesi bat baitzeuden. Carmelo Loperena arkitektoa zen Barañaingo plan orokorra egiteko lanen buru; plan hori planifikazio-tresna egokia zen, eta haiek bukatu zuten. Zorionez, hirigintza-arloan herriari erabateko dedikazioa eskaintzen zion beste zinegotzi bat ere izan zuen ondoan: Javier Elía.

“Niri kritika latzak egiten zizkidaten esaten zutelako nik 30.000 biztanle lortu nahi nituela horrela dirua izanen genuelako, eta nik esaten nuen ezetz, nik Barañainen ongi bizitzea nahi nuela”.

Bozketa egin zen eta erabaki zen urbanizatu gabe gelditzen zen eremua, besteak beste, kirol, hezkuntza eta kultura arloetako horniduretarako erabiltzea. Eraikuntzaren booma ikaragarria zen, etorkinak ere etxebizitza erostera bultzatzen ziren, alokatu beharrean.

Barañaingo festetan ongi pasatzen zuen, gogoratzen du. *“Festetan, biztanle bakoitzak bere ohiturak eta tradizioak proiektatzen ditu. Nafarroako Erriberatik etorritakoek beti bigantxak, kaldereteak edo saiheski-jateak nahi izan dituzte*”.

Eta bukatzeko, esaten digu Barañainen pribilegio berezi bat dugula: 3.000 biztanletik gora duen herri bat gara, semaforo bat ere ez duena. *“Hori Guinnessen jasotzeko modukoa da*”.

José Zubillagak atsegin handiz jarriko zuen tranbia bat Barañainen, herriaren inguruan halako ingurabide bat eginda; horrelako bat ikusi zuen Alemanian eta izugarri gustatu zitzaion. Biztanleek mugitzeko eta edozein lekutan igotzeko edo jaisteko aukera izanen zuten. Bi igogailu ere irudikatzen zituen berak horren bidean: bata, mutur batean, Barañain eta Etxabakoitz lotzeko; bestea, beste muturrean, Lagunak elkartera joateko. Amets hori ez zen sekula gauzatu; proiektu hutsa izan zen, elkarrizketetatik eta bete gabeko desiretatik harago joan ez zena.